

Begoña Yoldi, Teknia (Irun)

Maidier Santamaría, ZuriZuri (Legazpi)

Carmen Yorno, CYO Proyectos (Zaragoza)

“Mahai-ingurua: “Ekinari ekiteko konpromisoak”

2008ko irailaren 1a

## **“ENPRESA-PROIEKTU BATI EKITEA OSO GOGORRA DA, BAINA BAITA ERAKARGARRIA ERE, ETA BERRIZ EGINGO GENUKE”**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak, Euskal Unibertsitatearen XXVII. Uda Ikastaroen eta XX. Europako Ikastaroen barruan, antolatu duen “Emakumeak enpresaren erronkaren aurrean: ideiatik proiektura, proiektutik errealitatera” ikastaroan, mahai-inguru interesgarri bat egin zen. Bertan, hiru emakume ekintzailek enpresa-sustatzaile gisa izan duten esperientziaz hitz egin zuten.



Hiru emakumeak Begoña Yoldi, Irungo Teknia mediku-kontsultaren sustatzailea, Maidier Santamaría, Legazpiko ZuriZuri garbitegi industrialaren sustatzaile eta

sortzailea, eta Carmen Yorno, Irungo CYO Proyectos ingeniaritza-aholkularitzaren sortzaile eta arduradun nagusia izan ziren. Beren esperientzia aditzeko interes bizia zuen publikoari enpresa-munduan izandako alde onak eta txarrak azaldu zizkieten emakume ekintzaileek.

*“Nire proiektuari ekin nion nire burua pertsona gisa baloratzeko” (Carmen Yorno)*

Horrela, Begoña Yoldik azaldu zuenez, enpresa-proiektu bat hasteko, nahiz emakumea edo gizona izan, “mundu guztiak ez duen ilusio, gogo eta desio handia behar da”, eta lehen zailtasunak agertzen direnean ez ikaritzea. Maider Santamaría, enpresa bat martxan jartzeko behar den ekimena pertsonen izaerarekin oso lotua dagoela esan zuen. “Ni horrelakoa naiz, eta enpresa hau (ZuriZuri) martxan jarri ez banu, beste edozein ekimen sortzea sustatuko nuen. Zureak diren erronkak jarri eta helburu zehatz batzuk lortzera derrigortzen zaituen izaera-kontua da”.

“Enpresa-jarduerari 43 urterekin ekin nion, langabezian geratu nintzenean –esan zuen Carmen Yornok-. Nire proiektuari ekin nion nire burua pertsona gisa baloratzeko, baina borrokatu beharra izan nuen, batez ere, laguntza ezak eragiten duen bakardadearen kontra”.

Beren jarduera ekintzailean zehar jasan behar izan dituzten kezka nagusiak baloratzekoan, Begoña Yoldik adierazi zuenez, bere kasuan, sortu berri zegoen enpresak izan zituen arazoak, bereziki, “finantzazio-arazoei” loturik zeuden. Maider Santamaría ere irudipen bera zuen, baina, bere iritziz, finantzazio-arazoak ez dira hainbeste proiektua martxan jartzekoan, “proiektua bideragarria bada ez da zaila hasierako baliabide ekonomikoak lortzea”, bai ordea, bigarren mailako finantzazioan, enpresa jada martxan dagoenean behar denean, negozioa bere lekua hartzen eta oraindik sendotze-maila nahikoa lortzen ari denean. “Orduan izan zen, gure kasuan behintzat, arazo gehien eta likidezia eza genuen momentua”. Carmen Yornoren ingeniaritza-enpresa ISO bat lortzen lehena izan zen Aragoi eta Airbus erraldoi europarraren kalitate-ziurtagiria ere lortu du, eta bere iritziz, jarduerari ekiterakoan zuen kezka nagusia “erosleen konfiantza eza zen. Horregatik, beti pentsatu izan dut kalitate onenarekin lan egitea, planoak artelan gisa ematea eta bezeroen eskaerei berehala erantzutea, nire enpresa-ekimenak arrakasta izateko giltza direla”.

***Ekintzailetzaren arazo nagusienetako bat finantzazioa da***

Hiru emakume enpresarietako bat egiten dute diskriminazioa ez dela faktore garrantzitsua izan adierazterakoan. Maider Santamaría, emakume izateagatik ez dela bereizia edo baztertua sentitu esan zuen, eta Begoña Yoldik adierazi zuenez, “ez da denbora galdu behar horrelako gauzetan, nahiz eta ziur aski hor egon”; Carmen Yornok, diskriminazio-

arazoak egonda ere, batzuetan, “gure buruak guk geuk ez diskriminatzearekin” ere kontuz ibili behar dela adierazi zuen.

Jarduera ekintzaileak eskaintzen dituen poztasunak ere garrantzitsuak dira. Mainer Santamaría gehien asebetetzen duen, bere enpresaren inguruan sortu den ekipoak zein ondo funtzionatzen duen ikustea da, eta Carmen Yornorentzat, aldiz, “momentu bakoitzean, bere ustetan enpresa-erabaki egokienak direnak hartzeko askatasun osoa” izatea. Begoña Yoldik, bezeroen asebetetzea ikustea beretzat pozgarria dela azpimarratu zuen.

Hiru hizlariak ziotenez, familia eta lana adiskidetzeko aukera gehiago ditu bere enpresa zuzentzen duen emakumeak beste norbaitentzat lan egiten duen emakumeak baino, ordutegiak askatasunez jartzeko eta agenda malgua izateko aukera eskaintzen baitu, “baina azkenean, beste pertsona edo elkarte baterako lanean ari zarenean baino ordu gehiago eskaintzen dizkiozu lanari, zu zeu sustatzen edo zuzentzen ari zarenean enpresa-proiektua”.

Edonola ere, hirurek zuten iritzi bera: enpresa-proiektu bati ekitea oso gogorra eta benetan konplexua bada ere, berriz ere egingo lukete. Zailtasunak zailtasun.